

SELEKTIBITATEA BALDINTZA DUINETAN

Ikasturte amaiera gero eta hurbilago dagoen honetan, selektibitatea ere ate-joka daukagu. Mundu osoa astindu duen osasun krisiak aurtengo ikasturte akademiko ere modu nabarian baldintzatu du eta egoera honek sortutako larrialdiaren aurrean burua altxatzen hasi baino ez garen arren, bigarren batxilergoko milaka ikaslek, proba hau burutu beharko dute.

Euskal Herriko hezkuntza sail desberdinek, oraingo honetan ere, aldebakartasunez hartu dituzte unibertsitatera sartzeko proben inguruko erabakiak. Ezjakintasuna eta informazio falta izan dira nagusi hezkuntzaren inguruan hartutako erabaki guztietan eta, gaur gaurkoz ere, asko dira aurtengo ikasturtearen eta unibertsitatera sartzeko probaren inguruan dauden zalantzak, egun batetik bestera aldatzen baitituzte hartutako erabakiak. Pedagogia ereduari erreparatu gabe eta hezkuntzako kideon arteko adostasunik bilatu gabe erabaki dute probarekin aurrera egitea. Hala, osasun krisiaren ondorioak hezkuntza komunitatearen sorbaldaren gain jarri dituzte berriz ere. Beraz, ikasleek haien etorkizuna baldintzatu duen proba inoizko egoera zaurgarrienean egin beharko dute aurten; haien osasuna ere, arriskuan jarritz.

EAE n duela aste batzuk Hezkuntza Sailak azterketaren data zehaztu zuen. Uztailera atzeratu dute proba, baina ez dute gainontzeko informazio zehatzik eskaini. Azterketaren eduki eta baldintzen inguruan iritzi eta adierazpen ezberdinak egon diren arren, oraindik ez da inongo argipenik eman.

Nafarroaren kasuan egoera antzekoa da. Berandu iragarri zuten selektibitatearen data ekainaren azken astera atzeratuko zutela, eta, honez gain, ezer gutxi dakigu azterketari buruz. Hiru egunetan beharrean, lau egunetan egitea eta normalean baino ikastetxe gehiago baliatzea bezalako neurriak proposatu dituzte agintariek asteotan, baina ez dago erabaki ofizialik.

Beraz, selektibitatea egiteko gero eta gutxiago falta den honetan, Hego Euskal Herriko milaka ikaslek zalantzaz lepo jarraitzen dute; unibertsitaterako sarbidea ahalbidetuko dien azterketa non eta zer baldintzetan egingo duten jakin gabe.

Hezkuntza komunitateko eragileok ezin dugu onartu selektibitatearen inguruko erabakiak aldebakartasunez gurekin pentsatu gabe hartu izana, onartu ezin dezakegun bezala ikasle eta irakasleen osasuna arriskuan jartzea. Hartutako erabakiek argi uzten dute, EAEko zein Nafarroako gobernuek ez dutela hezkuntza komunitatearekin zubiak eraikitze inolako intentziorik. Oso larria iruditzen zaigu ikasleen egoera kontuan izan gabe etengabe erabakiak hartu izana. Sekulako presioa eragiten dien unibertsitatera sartzeko frogak, inoizko baldintza kaxkarrenetan egin behar izango dute aurten; inoiz baino presio gehiagorekin.

Egoera honen aurrean, hezkuntzako eragileok selektibitatea burutu ahal izateko neurri hauek aplikatu daitezela aldarrikatzen diegu Nafarroa eta EAEko hezkuntza agintariei:

- Selektibitatea ikasle bakoitzak ahalik eta gertuen daukan espazio seguruean egitea. Honekin batera, mugitu behar diren ikasleei garraio zerbitzua eskaintzea eta bertan ere segurtasun neurri guztiak bermatzea.
- Azterketa bitartean ikasleen arteko zein ikasle eta irakasleen arteko segurtasun distantziak mantentzea, eta beharrezkoak diren segurtasun material zein prozedurak ahalbidetu eta martxan jartzea.
 - Segurtasun neurriak bermatzeko alternatiba desberdinak arakatu: espazio gehiago ahalbidetzea edo txandaka egitea adibidez.
 - Azterketa bitartean egin beharreko desinfekzio zein garbiketa, garbitzaileen kolektiboarekin negoziatu eta koordinatzea, beharrezko formazioa jasotzen dutela bermatuz.
- Edukiei dagokienean, hirugarren ebaluaketan landutakoa azterketan ez sartzea exijitzen dugu. Alde batetik, ez dagoelako bermerik eduki hau ganoraz landu den ala ez ziurtatzeko, eta bestetik, modu telematikoa ikasturtea jarraitu ezin izan duten ikasleekiko desoreka handia sortuko delako.
- Azterketa ereduaren arteko ariketen aukeraketa malgua izatea.
- Azterketa zaintzeko eta zuzentzeko irizpide zehatzak osatu eta denboraz helarazi.

Covid-19ak sortutako egoera honetan selektibitatea burutzea lekuz kanpo dagoela uste dugu. Alde batetik, ikasleek azken hil hauetan ezin izan dutelako eduki kurrikularra behar bezala landu; klase telematikoen ikasleen arteko desberdintasunak areagotu dituzte, izan ere, ikasle bakoitzaren errealitatea kontuan izan gabe egin da aurrera, eta horrek, ikasleen maila sozio-ekonomikoaren araberrako arrakala handitu du, baita selektibitatearen prestakuntzari dagokionean ere. Eta bestetik, distantziatzen sozialerako neurriak hartzen diren bitartean ehunka ikasle azterketa bat egiteko elkartzera beharrezkoa ez dela ulertzen dugulako. Honi guztiari ikasleak jasaten ari diren presioak eta mahai-gainean dauden zalantzek, proba behar bezala prestatzea ekiditen diete. Beraz, azterketa burutu ahal izateko, goian aipaturiko neurriak aplikatu daitezela exijitzen dugu.

Azkenik, hau guztia aurrera eramateko maila lokalean hezkuntza komunitatearen mahai propioak sortuko ditugu. Ikastetxez ikastetxe eta herriz herri, hezkuntza komunitateko kide guztiok elkartu eta neurri hauek aplikatu daitezela lan egingo dugu. Horrez gain, EAE zein Nafarroako hezkuntza sailei gurekin biltzea eskatzen diegu, gure ahotsa behingoz entzun dezaten.

Ikasle eta langileen bizitza duinen alde,



Euskal Herrian, 2020ko ekainaren 11an

(*) ikasle eta langileen bizitzak erdigunera